

# **Bertako merkataritza, ostalaritza eta zerbi- tzuak sustatzeko neurri sorta**



**ehbildu**

# Aurrekariak

Garrantzia handikoa da bertako merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen eskaintza Pasaiaiko herriarentzat eta, honenbestez, EH Bildurentzat. Herritik eta herriarentzat lan egiten duten sektoreak direlako eta badituztelako herri dinamikan, euskararen zabalkundean zein kontsumo ohituren aldaketan eragiteko gaitasuna eta ardura. Aktibo inportantea dira edozein herri edo hiritan, baina, Pasaia behar duen suspertze ekonomiko eta sozialean are inportanteagoak dira. Bertako merkataritzarik, zerbitzurik eta ostalaritzarik gabe logela herria izatera kondenaturik baitago Pasaia.

Sektore hauek asko sufritu dute azken urteotan, batik bat, globalizazioak (kontsumo ohituren aldaketak, Internet bidezko erosketek, esaterako) eta merkataritza gunen irekierak nahiz handiagotzeak (Garbera kasu) eraginda. Eta motibo bat edo bestea dela, ez dute lortu garai berrietara behar bezain laster egokitzea.

Gainera, pandemiak hauen zaurgarritasuna areagotu egin du azken bolada honetan eta 2008. urtetik hona zekarten gainbehera azkartu du. Esaterako, Eustatek egin ohi duen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) azken eguneratzearen arabera %35 gutxitu da Pasaian bertako merkataritzaren eta zerbitzuen eskaintza 2008-2019 tartean eta %15 inguru ostalaritza establezimenduena. Bestera esanda, 211tik 137ra igaro da merkataritza-denda eta zerbitzuen kopurua eta 109tik 93ra ostalaritzarekin lotutako establezimendu kopurua.

Egoera larria da eta larritasun honen neurriko politika publikoak sustatu behar ditu Pasaiaiko Udalak eta, bereziki, Pasaiaiko udal gobernua datozen urteotan. Datuak aztertu besterik ez dago ikusteko azken urteotan hartu diren neurriek (hartu diren kasuetan) ez dutela nahikoa eragina izan eta oso hankamotz gelditu direla.

Horregatik, EH Bilduk oinarrizko neurri sorta hau prestatu du, egoera larri honi erantzutea presazko xedea delako. Bertako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak babestea eta zaintzea denon ardura da.

## **1. Laurak Bat elkartearen indartzea eta akonpainamendua**

EH Bilduko kideok garrantzitsua deritzogu Laurak Bat – Pasaiako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen elkartea – indartzea. Ondo eta sendo egituratutako elkarteak errazago bideratuko ditu sektore hauek dituzten eskaera eta beharrak udalaren aurrean eta gainera askotariko ekimenak sustatzeko indarra izango du.

Horrez gain, beharrezkoa ikusten dugu udalaren eta elkartearen elkarlana bultzatzea biek ala biek bertako merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzuek duten garrantzia herritarron artean barreiatzeko ardura dutelako.

Era berean, elkarteak berak bere ibilbidearekin egin behar du aurrera. Bazkideak batzen jarraitu behar du eta udalak horretarako baliabideak eta erraztasunak eman behar dizkio.

Hauek dira proposatzen ditugun neurriak:

- » Aholkularitza eta laguntza tekniko jarraia. Gizarteak eta ohiturak oso bizkor ari dira aldatzen, eta arestian aipatu bezala bertako merkataritzak eta ostalaritzak horietara egokitzeko laguntza behar dute. Euren baliabideak mugatuak dira horretarako eta udalak laguntza eskaini behar die ezinbestean: diru-laguntzen tramitazioan, legediaren interpretazioan,...
- » Bulego irisgarria eta bisiblea. Gaur egun Laurak Bat elkarteak Trintxerpeko Azokaren 2. solairuan du kokatuta bere bulegoa. Gune ezkutu batean eta jende askok ezagutzen ez duena. Beharrezkoa da elkartearen presentzia bermatzea kalean, lehen lerroan, ordezkatzeko dituen denda eta komertzioekin batera.
- » Elkarteko kide egiteko gonbita edonon. Pasaiako udalak aktibitate berriak irekitzeko ematen duen informazioarekin eta baimenarekin batera Laurak Bat elkartearen inguruko informazioa eman behar du. Aktore garrantzitsua da udala informazio honen zabalkundean eta pertsona ekintzaile guztiak elkartera bideratu beharko lituzke honen laguntza eta aholkularitza jaso dezaten.
- » Publizitate eta sentsibilizazio kanpaina etengabeak. Beharrezkoa ikusten dugu elkarteak berak egiten dituen kanpainaz gain, udalak horietan laguntzea eta era aktiboan parte hartzea. Aurretik aipatu bezala, udala aktore inportantea da informazioaren zabalkundean eta elkarteari herrian ditugun komertzio eta establezimenduak ezagutarazten eta balioan jartzen lagundu beharko lioke.

## **2. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak biziberritzeko talka-plana**

2021eko eta 2022ko udal aurrekontuen negoziazioan EH Bildu udal taldeak proposatu bezala, geroz eta beharrezkoa dugu paradigma aldaketa bat bizitzen ari garen garai likidoei aurre egiteko. Orain arte erabiltzen aritu garen formulek ez dute balio, eta hori bera aplikatu genezake baita aipatutako sektoreetan ere.

Pasaiaiko bertako ekonomia sustatzeko talka plana garatu behar du udalak, Laurak Bat elkartearekin batera, eta bakoitzak plan horretan bete beharreko funtzioak eta ardurak zehaztu behar ditu.

Gainera, hau egiteko Pasaiaiko Udalak badu helduleku bat. 2021ean Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO) idatzi zuen eta bertan, egoeraren diagnosi laburra egiteaz gain, zehazten dira zeintzuk diren datozen urteotan jorratu beharreko lan ildoak.

Urrats horien artean, oso garrantzitsutzat hartzen du planak Laurak Bat elkartearen indartzea, horregatik, EH Bilduk luzatutako proposamen sorta bertatik hasi da. Baina horiez gain, badaude bestelako proposamenak udal gobernuak oraindik garatzeko pausurik eman ez duena. Horrekin lotuta, hauek dira egiten ditugun oinarrizko proposamenak:

- » Kronograma bat egitea planaren ekintzekin. Plan orok gauzatze kronograma bat eta epe konkretuetan burutu beharreko helburu sorta jaso behar ditu. Beharrezkoa da Pasaiaiko Udalak eta Laurak Bat elkarteak elkarrekin kronograma hori osatzea eta bakoitza hartzeko prest dagoen konpromisoak bertan zehaztea. Neurri hau lehentasunezkoa da.
- » Digitalizazioan sakontzea. Udalak, beste administrazio batzuekin batera, komertzioen eta hauek erabiltzen dituzten baliabideen digitalizazioan sakontzen lagundu behar du horretarako diru-laguntzak gaituz. *EH Bilduren taldeak dagoeneko egin zuen proposamena zentzu honetan 2021eko eta 2022ko udal aurrekontuetan eta PSE-EEK eta EAJK neurria atzera bota zuten.*
- » Lokal hutsen udal erregistroa. Pasaian erabilera komertzialekin bateragarriak diren lokal hutsen udal erregistroa gauzatu behar du Udalak eta hau Laurak Baten eskura jarri. *Neurri hau dagoeneko adostu du EH Bilduk udal gobernuarekin 2022ko aurrekontuen baitan horretarako 10.000€-ko diru-funtsa bideratuz.*
- » Arau Subsidiarioak – hirigintza araudia – berritzea. Beharrezkoa da, eta Laurak Bat elkarteak ere askotan eskatu du, Pasaian gaur egun ditugun arau subsidiarioak egoera berrietara egokitzea, baita merkataritzari dagokionez ere. Beharrezkoa ikusten dugu etxebizitza eraikinen lehenengo solairuan dauden aktibitate ekonomikoak etxabeetara jaistea, eta baita ere aktibitate ekonomiko berriak hasteko lokalek izan behar duten gutxieneko azaleraren muga salbuespenak txertatzea. *Momentu honetan, udala HAPOaren garapenean ari da lanean eta neurri horiek bertan islatu beharko ditu.*

### **3. Paradigma aldaketa kontsumo ohituretan**

Aurrekarietan aipatu bezala, kontsumo ohituren aldaketak eta globalizazioak kinka larrian jarri dute Pasaia bertako merkataritza. Horri aurre egiteko neurriak ezarri behar ditu Udalak, baita ere Udalak berak egiten dituen erosketetan eta kontratazioetan bertakotasunari eta zerbitzuaren gertutasunari garrantzia berezia emanaz. Udalak adibide izan behar du, eta gutxienez, egiten dituen erosketak eta kontratazio txikiak herrian egin behar ditu.

Horrez gain, bereziki gazteen kontsumo ohituretan eragiteko kanpainak eta baliabideak jarri behar ditu herriko establezimenduen eskura, gazteak direlako etorkizunean herrian lan egin eta biziko direnak, edo hala beharko luke behintzat. Honekin lotuta, hurrengo hauek dira proposamenak:

- » Prebentzio eta informazio kanpainak. Udalak, Laurak Bat elkartarekin eta Oarsoaldearekin batera kontsumo jasangarriaren aldeko apustua egin behar du, baita ere bertakotasunaren garrantzia azpimarratu. Sasoiko produktuen kontsumoa, plastikoaren erabileraren murriztea, erosketak egiteko lehenik herrian dagoen ikusi eta gero mugitu urrutirago... Ez dugu nahi Pasaia logela herria izatea, babes dezagun gure aktibo ekonomikoa.
- » Udalaren erosketak, herrian. Udalak egiten dituen erosketak txikiak herriko komertzioan egiteko konpromisoa hartu behar du, horretarako beharrezkoak diren akordioak eta hitzarmenak garatuz. Herrian erostearen balio erantsia komunikatu behar du Udalak.
- » Gazte bonua. Udalak gazteak bertako merkataritza eta zerbitzuetara erakartzeko ahalegin berezia egin behar du, horretarako eskura dituen baliabide guztiak baliatuz. Urtean behin/bi urtean behin gazte bonuen kanpaina egitea proposatzen dugu, gazteek euren etxeetan jasoko lituzketen bonu pertsonalak herriko komertzioan eta zerbitzuetan erabil ditzaten eta bide batez, erosketak herrian egiteko ohitura har dezaten. *Neurri hau 2022ko aurrekontuetan proposatu zuen EH Bilduk eta PSE-EEK eta EAJk atzera bota zuten.*

### **4. Euskara**

Euskara ildo estrategikoa da EH Bildurentzat, horregatik arlo honetan hurrengo neurria proposatzen dugu Pasaian merkataritza eta ostalaritza euskalduna sustatze aldera.

- » 2/2016 Udal Legea eta 6/2003 Kontsumitzaileen Legea aintzat hartu eta garatu behar ditu udalak eta horiek garatzeko dekretuek jasotzen dituzten neurriak inplementatu. Bi lege hauek erreferentzia garrantzitsuak egiten dizkiote euskaren normalizazioari eta toki erakundeek zein merkataritza-sozietateek bete beharreko hizkuntza eskubideei.

## **5. Epe laburrean aplikatu beharreko neurri zehatzak**

Orain arte aipatutako neurri guztiek garapen eta ibilbide sakona behar dute. Baita konpromiso eta inplikazio handia Pasaiako udal gobernuaren aldetik. Dena den, badaude modu errez eta azkar batean har daitezkeen neurriak eta jarraian horiek zerrendatuko ditugu. Baita ere batzuei dagokienean proposamen zehatzak eman.

- » Merkataritza mahaia eratzea. Ostalariekin egin den bezala, merkataritza mahaia eratzea proposatzen du EH Bilduk. Sektorearen beharrak bertatik bertara ezagutzeko baliatu behar du udalak koordinazio organo hau, baita lehenago aipatu dugun planaren jarraipena egiteko ere. Bai merkataritza mahaiari zein ostalaritza mahaiari konstituzio formala eman behar die udalak biltzeko egutegia eta helburuak ongi zehaztuta.
- » Trintxerpeko eta Antxoko azokak indarberritu. Beharrezkoa ikusten dugu Pasaiak egun dituen bi azokak indarberritzea. Horregatik, beharrezkoa da lehenik eta behin udalak horiek arautzeko duen ordenantza berritzea eta azoketan aktibitate berriak irekitzeko erraztasunak ematea. *Udala dagoeneko murgildu da ordenantza berritzeko prozesuan.*
- » Sentsibilizazio eta kontsumo kanpainak. Udalak sentsibilizazio eta kontsumo kanpainak bultzatu behar ditu, Pasaiako herritarrek herrian dugun aktibo komertziala ezagut dezaten. Kanpaina horietan bertako merkataritza eta ostalaritzaren balio erantsia jarri behar dugu indarrean. *Honekin lotuta, 2022ko aurrekontuen baitan 50.000 € adostu ditu EH Bilduk kontsumo-bonuen kanpaina egiteko 2022. urtean bertan.*
- » Terrazak eta mahaitxoak arautzeko udal ordenantza berritzea. Azken hilabeteotan EH Bildu ordenantza berria lantzen aritu da ostalaritza sektoreko eragile ezberdinekin batera. Pandemiaren ondorioz, arazo eta erronka berriak sortu zaizkigu, baita ostalaritzaren sektoreari dagokionean. Hori dela eta, EH Bilduren udal taldeak bere ordenantza propioa garatu du horretarako sektoreko eragile ezberdinak inplikatur eta interpelatur. Ordenantza proposamen berriak gainera, terrazak eta mahaitxoak arautzeaz gain EH Bildurentzat garrantzitsua den euskararen gai estrategikoa txertatzen du eta hori sustatzeko neurriak ezartzen ditu. *Apirileko udalbatzarrean eztabaidatuko da honen onarpena EH Bilduk egindako 30 proposamen zehatzekin batera.*